BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2700

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 15ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, 2012 ekitaldiko Euskal Merkataritza Sariak ebazten dituena.

Euskal Merkataritza Sariak arautzen dituen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko martxoaren 16ko Aginduaren 9. artikuluan zehaztutakoaren arabera (2011ko martxoaren 28ko EHAA, 60 zk.), 2012. ekitaldiko deialdia iragartzen duen Merkataritzako zuzendariaren 2012ko otsailaren 22ko Ebazpena (2012ko martxoaren 13ko EHAA, 52. zk.) ikusita, eta horretarako izendatutako epaimahai kalifikatzaileak eginiko proposamena ezagututa, honako hau

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra.– 1.– 2012ko ekitaldiko Euskal Merkataritza Sariak ematea, kategoria bakoitzean ondoren aipatzen diren irabazleei:

- Enpresa-lankidetza: Mercado de Barrio.
- Merkataritza-berrikuntza: Arte Pan.
- bilbide– Profesionala: Romualdo Doistua (Roaldo Bitxitegia).
- Hiriko Inguruneen Dinamizazioa: Sens Irun.

2.– Onuradunek, 2011ko martxoaren 16ko Aginduan ezarritakoari jarraituz, aintzatespen edo aipamen publikoa jasoko dute, horretarako antolatzen den ekitaldian.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Aginduaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agertzen den egunaren biharamunetik hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 15a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.